

COVID-EN AURKAKO NEURRIAK DIRELA ETA, 2020-2021eko IKASTURTEAN “PRINTZEAREN GOTORLEKUA” EGOITZAKO GELAK ETA EKITALDIETARAKO ARETOA ERABILTZEKO PROTOKOLOA

“Printzearen Gotorlekua” Egoitzako gelak eta Ekitaldietarako Aretoa erabiltzeko **derrigorrez bete beharreko** arauak ezartzen ditu Protokolo honek.

- COVID-19aren pandemia dela eta, “Printzearen Gotorlekua” egoitzako zati berria Osasun Departamentuak erabiliko du eskolako ikasturte osoan.

Horrexegatik, ezarritako arau guztiak zorrotz mantentzea ezinbestekoa da.

Ezin dira erabili sotoko solairua bere osotasunean, sotoaren solairutik lehenengo solairura igarotzeko igogailua eta eskailerak eta Egoitzako zati berriko lehenengo solairua, soilik Osasun Departamentuarentzat baitira.

- “Printzearen Gotorlekua” Egoitzako Ekitaldietarako Aretoan, geletan, sarbideetan, komunetan eta pasilloetan erabiliko diren higiene eta osasun neurriak aplikatzeko arduraduna entitate eskatzailea izanen da. Sarbide eta kontrolarena ere bai.
- Sarbideen kontrola ate nagusian banaka egingen da. Bertaratutako bakoitzaren izen-deiturak, Estatuko Nortasun Agiria eta telefonoa idatzi eta gorde behar dira.
- Eserlekuen arteko tartea gutxienez 1’5 metrokoa izanen da eta gela bakoitzean gehienez edukieraren % 30ekoa izanen da erabilgarri.
- Beharrezko lekualdatzeetarako izan ezik pasilloetan ezin izanen da egon. Atsedenaldiak kalean egingen dira eta erabilera komuneke eremuetan inolaz ere ez.
- Komunetan edukieraren % 30 izanen da erabilgarri eta pertsonen arteko tartea 1’5 metrokoa izanen da.
- Ekitaldietarako Aretoa edo gelak erabiltzeko baliabideen antolaera entitate eskatzaileak egingen du.
- Bertan ibiltzeko egoitzako seinaletikari jarraitzea beharrezkoa da.
- Gela bat egunean behin soilik erabili ahal izanen da.
- Ekitaldiaren ondorengo egunetan kutsatuta edo sintomekin pertsonaren bat agertuko balitz, Osasun Departamentuari jakinarazi beharko lioke entitate eskatzaileak, bertaratuko lagunen zerrenda eman eta eskatutako protokolei jarraitzearekin batera.

- “Printzearen Gotorlekua” Egoitzako Ekitaldietarako Aretoa edo gelak erabiltzeko entitate eskatzaileak ados egon behar du Protokolo honekin. Horretarako, entitateak sinatu behar du eta zigilua jarri.
- Ez ohiko langileak kontratatu beharra balego, ez da egoitza utziko.
- Protokoloan ezarritako arau eta neurri orokorrak ikasturtean zehar alda daitezke.